

EHERRAZKORREN
GONBERRIA
ZEHARRA

Txostena 2017



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



Aurkibidea

- 1. AURKEZPENA 3
- 2. GURE EKIMENAK 6
 - Eragin politikoa 6
 - Giza mobilizazioa, sentsibilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza 9
 - Generoa 19
 - Formakuntza 21
 - Ikerketa 24
 - Komunikazioa 25
 - GGKEak eta sektorea indartu. Publikoari arreta 27
- 3. NORTZUK GARA 30
 - Gobernu Batzordea 31
 - Lan-taldeak 31
 - Erakundeetan partaidetza 33
 - Talde Teknikoa 33
 - GGKEak 34
 - Lankideak 34
- 4. KONTU ARGIAK 35



1 AURKEZPENA

Garapenerako gobernu kanpoko Euskadiko 80 erakunde (GGKE) osatutako kolektibo bat gara eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan eta nazioarteko lankidetzan dihardugu. 1988tik, garapenerako lankidetzakalitate onekoa izan dadin sustatzen aritu gara, hala instituzio publiko eta pribatuetan, nola kide diren GGKEetan. Bestalde, kide diren erakundeei beren prozesuetan laguntzen diegu, gaitasun politiko eta teknikoak sendotzen ere bai, eta, horretaz gain, gure ingurunean ere eragiten dugu, hainbat alderditan gizartearen eraldaketan lagundu nahian. Horretarako, gure jardueren ardatz izaten dira, besteak beste, herritarrengan elkartasunaren kultura sustatzea, desberdintasunak eta pobrezia eragiten dituzten egiturak alda daitezzen bultzatzea, parte-hartzea sustatzea, eta eztabaida kritikoa piztea gure garapen-eredu patriarkal eta neoliberalak desberdintasunekin eta pobreziarekin duen loturaz. Gure iritziz, sustatu beharrekoak dira demokrazia partizipatiboa, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero-berdintasuna.

Giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzearen herri pobretuekin batera lan egitea, horixe da gure ustez garapenerako lankidetzak, eta horrela aritzen gara. Prozesuaren oinarria beti dira elkartasuna, elkarrekikotasuna, eskuzabaltasuna eta doakotasuna, eta inoiz ez transferentzia ekonomiko hutsa. Lankidetzak, gainera, beti dakar herritarrak hezteak, sentsibilizatzea eta kontzientziatzea giza garapena oztopatzen duten mekanismoei buruz. Jokabide Kode komun bati jarraituz jokatzen dugu; kode horretan jasota dauden printzipio eta balioek gidatzen dute gure erakundearen nahiz GGKE kideen jarduna.



Legedia betetzen dela eta politikek koherentzia gordetzen dutela
ZAINTZA.



Lankidetzarako politketan
ERAGITEA.




Gizarte-mugimenduekin **ALIAITZAK SUSTATZEA**, mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta alternatiba pluralak eraikitzeko.

Eragin politikoa, salaketa eta mobilizazio soziala, genero-berdintasunarekin, kide diren GGKEek gizarte-eraldaketarako duten gaitasuna sendotzeaz gain, horietan dira gure erakundearen bi lan-ildo nagusiak,
BOST HELBURUTAN zehazten direnak:



HERRITARREI JAKINARAZTEA, MODU KRITIKO
eta propositiboan, zerk eragiten duen eta zer ondorio dituen pobreak eta Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunek, batetik, eta gure gizartean aberastasuna desberdin banatuta egoteak, bestetik.



Kide diren erakundeen **GAITASUNAK HOBETZEA**, bakoitzak bere helburuak modu koordinatu eta eraginkorrean eta barne-koherentzia gordez lor ditzan

Batzar Nagusia erabakimen handieneko organoa da, eta aldian-aldian biltzen da, urte bakoitzeko jardun-ildo eta -irizpideak finkatzeko. Lurralde Batzarrak hiru ordezkaritzen gobernu-batzarrak dira. Gobernu Batzordeari dagozkio eginkizun be-tearazleak, eta hark antolatzen eta zuzen-tzen ditu jarduerak. Horietaz gain, badira zenbait gairi buruzko lantaldeak; besteak beste, eragin sozial eta politikoa, generoa, komunikazioa eta gizarte-erlaketarako hezkuntza. Lantalde teknikoaren lagun-tzaz, aipatutako esparruetan hartutako erabakiak gauzatzen dituzte lurralde-ordezkaritzek. Bestalde, bai GGKEei eta bai herritarrei informazioa nahiz aholkua emateko zerbitzua ere eskaintzen dugu.

1999tik, Espainiako GGKEen Koordi-nakundeko parte gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellakuria saria eman zigun garapenerako lankidetzan egin-dako lanagatik. Araban eta Bizkaian *Euskararen bidean* ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, *Zerbitzua euskaraz*, *Bai Euskarari* elkarteak emanak.



MINIKA
Asteartea, 2017ko azararen 17a

Pobrezia arriskuan daude Hegoaldeko herritarren %15

Pobrezia erantzuneko Europako Sareak ezagutarazi du urtebetean 55.000 pertsona gutxiago daudela pobrezia edo bazterkeria egoeran

Jon Rejudo

Hego Euskal Herriko 431.000 biz-tanle pasatxo pobrezia edo baz-terkeria arriskuan bizi izan ziren laz. Hara da, ia sei herritarretik bat egoera horretan zegoen. Pobrezia-riaren Aurkako Europako Sareak eragitarazi berri du zerbaki hori, 2015eko datuekin alderatuta, jai-tsierra bat gertatu da. 2015ean, biztanleriaren %16,8 zegoen po-brezia eta habegabetasun arris-kua, 2016an baino 55.000 ga-tsiago, gutxi gorabehera.

Datu horiek ateratzeko, ARKO-PE adierazlea baliatu dute: po-brezia ekonomikoa, gabezia mate-rialia eta laneratzeko tasa tuzartzen dituen sistema. Datu horiek, or-dea, Espainiako esparruan loka-tu dira Pobrezia erantzuneko Eu-ro-pako Sareak. Horiek datuak desituztatu dituzte, eta txoste-nak berak berretarako konpo-nibidea eman da. Adibidez, po-bre-zia ekonomikoan dauden perso-nen batezbestekoa %9 da Hego

Zero Pobrezia asteanen aurkezpena, atzo, Donostian, EUSKAL LANGAZPENA

Euskal Herrian, Espainiako bater-esteko diru sarreak aintzat har-tuz gero, Oreea, erkidegoetako batez besteko diru sarreak aint-zat hartuta, egoera oso bestela-koa da. Arabako, Bizkaiko eta Gi-puzkoako eremuan biztanleen %18,5 egongo lirake pobrezia ekonomiko egoeran, eta Nafar-

rian, %14,7 lertan jakinarazi du «persona» gutxi dardela po-brezia larrian, Hego Euskal He-rriari.

Bestalde, Zero Pobrezia Astea aurkeztu zuten atzo, Donostian, Gasteizen eta Bilbon bainat ekarria egingo dituzte, aldarri-terako migratza ez dela delitu.

Youtubeko gure kanalean eta webgunean erakundeak 2017an egindako lana laburbiltzen duen bideo bat ikus dezakezu



2 GURE EKIMENAK

ERAGIN POLITIKOA

Kalitatezko lankidetzaren politika deszentralizatu bat bermatu nahi dugu eta gizartearen ongizatea eta kohesioa bermatzeko lankidetzaren politika horrek egiten duen ekarpenaren balioa nabarmendu; horretarako, ekintzak egiten ditugu euskal erakunde publikoekin eta alderdi politikoekin:

Harreman egonkorak izan ditugu lankidetzarako politikak egiteko ardura duten eragileekin, erakunde publikoekin eta Euskadin ordezkariak duten alderdi politiko nagusiekin. Honako hauekin egindako bilerak nabarmenduko genituzke: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin; hiru Foru-Aldundietako lankidetzaren sailen arduradunekin; Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Udaletakoekin (beste herri batzuenetakoez gain); eta Legebiltzarrean nahiz aipatutako beste instituzioetan oposizioan dauden taldeekin.

Bi agerraldi egin ditugu erakunde publikoetan: urriaren 27an, Gasteizko Udaleko herri-txandan adierazi dugu beharrezkoa dela erakunde horretako garapenerako politiken koherentzia bultzatzea eta %0,7ko helburua lortu ahal izateko udaleko aurrekontuek egonkortasun handiagoa izatea; eta azaroaren 10ean, Gasteizen, *Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotze politikaren analisia: garapenerako politiken koherentzia* deritzon gure ikerketa aurkeztu dugu Eusko Legebiltzarraren, Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean.

Euskal erakunde nagusien lankidetzapolitiketako arau-dokumentuetan aldaketa handirik egon ez den arren, ekarpenak egin ditugu oinarrietako edo dekretuetako aldaketetan. Horrez gain, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Programak tresnari eta Ekintza Humanitarioko deialdiari egindako berrikuspene-tan ere egin ditugu ekarpenak.

Ordezkaritza aktibo eta egonkorra dugu partaidetzarako eta elkarrizketarako eremu hauetan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorean; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan (eta haren Batzorde Iraunkorrean); Kanpo Harremanetarako Batzordean; Lankidetzako Bilboko Udal Kontseiluan (eta haren Batzorde Exekutiboan), Donostiakoan (eta haren Batzorde Iraunkorrean), eta Gasteizkoan (gaur egun Elkargune deritzon); Gasteizko Gizarte Kontsei-



Eusko Legebiltzarra

luan; Arabako Foru Aldundiaren Eskutik Mundura prozesuan, eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaian. Jarraipena egin diegu horien guztien agendei, eta gure iritzi, proposamen eta ekarpen adostuak aurkeztu ditugu.



Euskadiko instituzio publiko nagusietan gaur egun lankidetzaren esparruan indarrean dagoen legedia betetzen ote den aztertu dugu. Helburu horretara bideratutako aurrekontuei dagokionez, erakundeek garapenerako laguntza ofizial gisa ematen duten ehuneko kalkulatzen sistema homogeen bat proposatzen jarraitu dugu; izan ere, malgutasunez barne-produktu gordinaren %0,7 bideratzeko nazioarteko akordiorantz iritsiz joatea dugu erronkatzat. Martxoaren 15ean, Donostian, kale ekintza bat egin dugu, *Gure elkartasuna, guztion garapena* izenekoa, komunikabideentzat prestatua. Ekintza horren bidez, euskal erakundeek 2017an lankidetzaren politiketarako aurrekontuak geratuta eduki dituztela salatu dugu, eta, horren ondorioz, gobernu kanpoko erakundeek giza eskubideen defentsan lanean jarraitzeko dituzten gorabeherak jarri ditugu agerian. Gainera, azaroaren 3an, prentsa-ohar baten bidez, 2018ko lankidetzarako aurrekontu-proposamenen beste balorazio bat egin dugu, aipatutako geldialdiak jarraitu egiten duela, igoera puntual batzuk egon arren, egiaztatuz.

Garapenerako politiken koherentziaren arloan ere egin dugu lan erakundeekin, eta eskatu diegu lankidetzaren eragina hobetzea izatea gobernuen ekintza guztien helburua. Horretarako, gobernuek ziurtatu egin behar dute politika guztiak bat datozeela giza garapen bidezko eta iraunkorreko helburuekin eta pobrezia eta desberdintasunen kontrako borrokarekin, esku-hartze bakar batek ere lankidetzaren bidez lortutako aurrerapenak gelditu edo bertan behera utz ez ditzan.

Eragin politikorako udal- eta eskualde-estrategia bat landu dugu, eta, horren barruan, *Diru-laguntzen oinarri orokorren eta delaldi publikoen irizpideak* izeneko dokumentua prestatu dugu. Honako hau du helburu: gida moduan balio izatea eta udalei eta nazioarteko elkartasun-politikei bultzada bat ematen laguntzea.



Urrats bat gehiago prozesutik, lantalde hauek sortu ziren: Ekintza Humanitarioa eta Larrialdiak; Aurrekontuak; Tresnak eta Lehentasun Geografiko eta Sektorialak; Barne-koherentzia; eta Koherentzia Instituzionala. Lanean jarraitzen dute aipatutako gaietan adostasunak eta iritziak bultzatzeko.



GIZA MOBILIZAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

Herritarrengan elkartasunaren kultura sustatu eta gure gizartea eraldatu nahian, mobilizazioak antolatzen ditugu, beste kolektibo batzuek sustatutakoak babestu, eta sentsibilizazio-jardunaldiak edo -jarduerak egin:

Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, Zero pobrezia kanpainaren barruan, pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu. *Desparekotasun gordinen aurka mugitu* lelopean, zenbait elkartek bat egin genuen Pobreziaren Aurkako Astean.



Arabian, urriaren 17an, elkarretaratze bat antolatu dugu Gasteizen, batukadarekin.

Bizkaian, urriaren 17an, manifestuaren irakurketa publikoa egin dugu Bilboko Udaletxe-ko eskaileretan, eta 21ean, bizikleta-martxa aldarrikatzaile bat, hori ere Bilbon. Jarduera horiek REAS Euskadiren (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) eta EAPN Euskadiren (Pobreziaren eta Giza Bazterketaren aurkako Europako Sarea) laguntzarekin antolatu ditugu.

Gipuzkoan, honako jarduera hauek egin ditu Donostiako Zero Pobrezia plataformak: urriaren 18an, bisita gidatua *Errefuxiatuak, ongi etorri* erakusketara, eta ondoren, *Consumo, migraciones y desplazamientos forzosos* ize-

neko solasaldia Maryam Fathy-ren (aktibista eta errefuxiatu kurdua) eta Tarana Karim-en (SOS Arrazakeriako kidea) eskutik; hilaren 20an, *La Zanja* antzezlanaren *Caminamos para crecer* kulturarteko antzerki-taldearekin; hilaren 21ean, ohiko bizikleta-martxa aldarrikatzailea, *Txita Sound System*-ek eta ISSAWA taldeak girotuta; eta, azkenik, azaroaren 6an, zineforumean, *Las lágrimas de África* filma. Horrez gain, Donostiako Zero Pobrezia plataformak beste zenbait jarduera ere egin ditu urtean zehar: Abordaia, Lilatoia, zerga-eragozpenaren kanpaina, munduko arrozak, Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna...

Zein da zein? sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainarekin jarraitu dugu. Haren helburuak hauek dira: herritarrei azaltzea, modu ulergarri eta pedagogikoan,



zer-nolako inpaktuak dituen sistema neoliberal eta patriarkalak bai mundu mailan eta bai toki mailan; inpaktu horien arduradun nagusiak identifikatzea; eta zenbait jardunbide-estrategia proposatzea. Kanpaina zabaltzeaz eta bideoak zenbait gunetan proiektatzeaz gain (esaterako, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian eta Kultura, Communication y Desarrollo GGKEaren Zinema Ikusezinaren Jaialdian), 15-18 urteko gazteentzat unitate didaktiko bat prestatu dugu, hezkuntza formalean nahiz ez-formalean erabiltzeko.

Hain zuzen, *Zein da zein?* kanpainaren barruan, lantegiak eman ditugu eskolatan: Gasteizen eta Laudion, urrian; eta Amurrian, berriz, maiatzean. Lantegi horien bidez, ikasgeletan landu ditugu pobreziaekin eta berdintasunik ezarekin lotutako gaiak nahiz guztiontzat bidezkoagoa izango den garapen-eredu baterantz joateko dauden alternatiba

eta proposamenak. Zenbait GGKEk hartu dute parte lantegi horietan, eta beren proiektu eta esperientzietan oinarritutako edukiak eskaini dituzte. Lantegi horietan erabili dugun unitate didaktikoa; horrez gain, GGKEei, eskolei eta intereseko beste eragileei ere banatu diegu.

Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu beste behin ere, Donostian, ekainaren 9an. *Ilargi azpian mundu zabala, errealitate anitz* izenburu berriarekin, udako zinema antolatu dugu kalean, eta mundua aldatzeko film laburrak eskaini ditugu. Aizpea Goenaga eta Telmo Irureta aktoreek aurkeztu dute emanaldia, Oihulari klown taldeak girotuta.



Pobrezia eta desberdintasunak zeinek sortzen duen jakiteko jo webgune honetara:
www.iniciativaquienesquien.org





Azaroaren 23an, *Gasteiz konexioan: Bangladesh, Kolonbia eta gure hiria lotzen dituzten istorioak* sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu Arabako hiriburuan, gure gizartearen eta herrialde pobretuen arteko loturak erakusteko hiritarrei. Honako hauek hartu dute parte: Iratxe Arteagoitiak (*Arropa Garbia* kanpaina) eta Succubusek (*jÁnimo, valiente!* firmako disenatzaile gasteiztarra); Richar Sierra giza eskubideen defendatzaile kolonbiarrak; eta Goian proiektuko (gazteen bizikidetzarako hezkuntza- eta gizarte-proiektua, errespetutik eta dibertsitatetik) kide diren Auzo-dance eta Biribildu Aerobic Klubeko gazte talde batek. Rosa Maria Calaf kazetariak aurkeztu du ekitaldia, eta Luis Aramburu udal musika-eskolako ikasleen *Los Pepinos* musika taldeak girotu du saioa, Pernan Goñi artistaren ilustrazioekin batera.

2018an, 30 urte betetzen ditu Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, eta Euskadiko lankidetzaz-politikek ere bai. Gertaera horrek euskal lankidetzaren lana eta GGKEk egiten duten ekarpena azpimarratzeko aukera ematen digula pentsatuta, lantalde batek kanpaina bat prestatu du *Workoholics* komunikazio-agentziarekin lankidetzan, helburuak, mezuak, identitate bisuala, kanalak eta leloa (*30 urte aztarna uzten*) agerian utziz. Ekintza propioak antolatuko dira, eta Koordinakundearen gainerako jarduerak ere hartuko ditu bere gain kanpainak. Jarduerak 2018an egingo diren arren, euskal lankidetzaren 30 urteei buruzko manifestu bat eta garai honetako lankidetzaren mugarri eta erronkei buruzko laburpen bat prestatzen hasi gara 2017an.





Urriaren 5ean, Zentzuz Kontsumitu proiektuarekin batera, *Zer ondorio ditu jaten dudanak? Elikadura bidezkoago, iraunkorrago eta osasuntsuagorako kaleko esperientziei buruzko jardunaldia* antolatu dugu, gai horretan gehiago sakontzeko eta gaiarekiko interesa duten kolektibo, erakunde eta pertsonen arteko aliantzak sortzeko. Honako hauek hartu dute parte: BioAlai (kontsumo ekologikoaren elkarte), Yago Calbet (Cardedeun, Katalunia, elikadura-burujabetzako esperientzia integrala bati buruz); EHKOLEktiboa (Euskal Herriko bio-baserritar agroekologiko eta herritarren kolektiboa); eta Nerbioi Goiena Elikadura Kontseilua.

Maiatzaren 19an, Amurrioko Udalarekin batera, *Amurrioko XVII. Elkartasun Azoka* antolatu dugu; eta urriaren 27an, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, *Laudioko XI. Elkartasun Azoka* antolatzen lagundu dugu, Laudioiko Udalarekin batera. Bi ekimen horiek herritarrei elkartasuna eta lankidetzaz egazutaraztea dute helburu.

Azaroaren 14tik 19ra, *Emakumeak: garapenaren protagonistak* izenburuarekin, erakusketa eta zineforum batzuk antolatu ditugu Agurainen, hango udalarekin batera. Kide diren zenbait GGKEk hartu dute parte haietan.

Helburu berak dituzten beste gizarte-mugimendu eta -eragile batzuekin ere egiten dugu lan sarean, horrek ekintza gehiago egiteko eta gehiago eragiteko aukera ematen baitigu:

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako partaide gara. Hainbat gizarte-mugimenduk eta sindikatuk osatutako plataforma horrek gure ekonomia eta baliabideak hiritarren zerbitzura jartzea du helburu, jende guztiak bizi-baldintza duinak izan ditzan, oinarrizko eskubide sozialak aitortu eta gauzatu. Zenbait ekintza antolatu ditugu; esate baterako, hauek: apirilaren 1ean, Bilbon, diru-sarrerak bermatzeko errenta defendatzeko mobilizazioa, *Eskubide sozialen defentsan* lelopean; ekainaren 8an, Bilbon, giza katea, *Bizitza duina, fiskalitate justua* lelopean; eta ekainaren 14an, Donostian eta Bilbon, zenbait mobilizazio, gizarte-babeserako sistema publikoaren alde. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak baloratzeko ekintzak; transfobiaren aurka mobilizazioak hiru euskal hiriburuetan; eta beste zenbait ekimen egin ditugu *Euskal Herriak TTIPari EZ* plataformaren barruan.

Hain zuzen, *Euskal Herriak TTIPari EZ* plataformak hitzarmen horren negoziazioen jarraipena egin nahi du, eta herritarrei hitzarmenaren edukiaren eta mehatxuen berri eman. Atlantiko-arteko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmenaren (TTIP) negoziazioak gelditu ostean, honako bi hitzarmen hauei adi dago plataforma: 2016ko urriaren 30ean sinatutako Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko CETA merkataritza libreko ituna eta Munduko Merkataritza Antolakundeko 23 estatu negoziatzen ari diren Zerbi-

tzuen Merkataritza buruzko Nazioarteko Akordioa (TISA). Zenbait mobilizazio antolatu dira, hala nola: urtarrilaren 21ean, CETAREN aurkako elkarretaratzeko zenbait herritan; otsailaren 14an, alderdi politiko batzuen egoitzetan; maiatzaren 18an, Bilbon eta Donostian, *CETA EZ! Nos roban la democracia: herriek erabaki* lelopean; ekainaren 27an, Donostian; eta ekainaren 3an, Bilbon eta Donostian, eta ekainaren 5ean, Gasteizen, zenbait jarduera *CETA EZ!* lelopean.



Ecuador etxea



Emakumeen giza eskubideen eta genero-berdintasunaren defentsan aritzen direnen sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Mugimendu feministarekin lan egiten dugu; zehazki, martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) Bizkaiko Koordinadora Feministan parte hartu dugu, lelotzat *Contra la barbarie heteropatriarcal; feminismoa zorroztu* hartuta, eta azaroaren 25eko (Indarkeria Matxistaren aurkako Na-

zioarteko Eguna) Bizkaiko Koordinadora Feministan ere bai, lelotzat *Zure egia gurea eginez* hartuta. 2018an egingo den Emakumeen Mundu Martxa prestatzen ere parte hartu dugu. Donostian, Emakumeen Etxearekin ere elkarlanean ari gara, eta, haiekin batera, martxoaren 8aren harira egindako Lilatoia emakumeen herri-lasterketan parte hartu dugu, bai eta azaroaren 25eko manifestazioan ere.

Ekain sarearen (Euskadiko Gizarteratzearen Aldeko Sarea) kide gara. Erakunde hauek osatzen dute plataforma, gure erakundeaz gain: REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea), EAPN Euskadi (Pobreziaren eta Giza Bazterketaren aurkako Europako Sarea), Harresiak Apurtuz (Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKEen Koordinakundea), Gizatea (Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte), eta Hirekin (Euskadiko Gizarte-Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte). Ekain Sarearen helburua gizarte inklusiboago bat sustatzea da, eta, horretarako, ekitatean, elkartasunean eta parte-hartzean oinarritutako politikak eta balioak bultzatzen ditu. Gai jakin batzuei lotutako jardueretan parte hartu dugu, esate baterako, diru-sarreak bermatzeko errentari buruzkoan.



Gipuzkoako SOS Arrazakeria eta medicus-mundi gipuzkoa taldeekin batera, eta beste kolektibo sozial, elkarte eta GGKE batzuen laguntzarekin, *XXI. Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Martxa* antolatzen lagundu dugu. Martxoaren 19an izan da, Donostian, eta besteak beste, immigratzaileen eskubideak aldarrikatu ditugu martxa haren bidez, *Soluzioak: derecho de asilo y acogimiento efectivo* lelopean.



Donostiako Udalarekin eta beste kolektibo batzuekin elkarlanean, Donostiako XV. *Giza Eskubideen Zinemaldian* hartu dugu parte, martxoaren 31tik apirilaren 7ra.

Desazkundera eta Bizitze Ona taldean parte hartu dugu. Talde horrek tokian tokiko mailatik desazkunderaren aldeko proiektuetan lan egiten duten hamar erakunde eta talde baino gehiago biltzen ditu. *Tipi-tapa bagoaz! Hacia vidas SOS tenibles* kanpaina jarri du martxan, eta, beste jarduera batzuez gain, sinadurak biltzeko ekimen bat abiatu du, sareko eskaera nagusientzat babesa biltzeko. 2018an egingo den Bizitza Iraunkorraren Aldeko Herri Auzitegia antolatzen ere lagundu dugu. Ekimen horrek honako hau du helburu: bizitza iraunkorra izateko pertsonen eskubidea urratzen duten kasuak salatzea.

Garapenerako GKEen Espainiako Koordinakundeko kide gara. Haren lanari jarripena emateaz gain, honako hauetan ere parte hartu dugu: Ohiko Batzar Orokorrean, apirilaren 1ean, Madrilen; Erkidegoetako Koordinakundeen Sarearen zenbait espaziotan (urtarrilaren 28an, bideokonferentzia bidez; ekainaren 10ean, Iruñean; eta irailaren 16an, Madrilen); Erkidegoetako Koordinakundeen Urteroko Topaketan, azaroaren 24an eta 25ean, Madrilen; eta Zero Pobreziaren urteroko topaketan, urtarrilaren 27an, Madrilen.



Ecuador etxea



Errefuxiatuei eta pertsona migratuei elkartasuna erakusteko eta haien egoera salatzeko plataformetan parte hartzen dugu. **Arabian**, *Gasteiz Irekia* ekimeneko kide gara, eta, hark hirian egindako jardueren artean, ekainaren 17an egindakoa nabarmenduko genuke. Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren (ekainak 20) harira izan zen, *Construyamos puentes: errefuxiatuekin* lelopean. *Gasteiz Irekiako Errefuxiarte* taldeari ere lagundu diogu. Talde horrek sentsibilizazio-lan handia egin du hiriko gizarte-etxe eta hezkuntza-zentroetan. **Bizkaian**, *Ongi etorri Errefuxiatuak-Bizkaia* plataforman hartzen dugu parte, eta hark egindako ekintzen artean, hauek nabarmenduko genituzke: *Ongi Etorri Gernika* ekitaldia (apirilaren 29an eta 30ean), zeinaren bidez, herri horren bonbardaketaren 80. urteurrenaren harira, milaka lagun mobilizatu baitira migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideen alde, eta ekitaldi hori komunikabideei ere aurkeztu zaie (martxoaren 18an); elkarretaratzea eta manifestazioa egin dira Bilbon, *Playa de Tarajal, Ceuta, ¡15 asesinatos impunes!* lelopean (otsailaren 6an); eta elkarretaratzea Errefuxiatuen Mundu Egunaren harira (ekainaren 20an, Bilbon). **Gipuzkoan**, *Ongi Etorri Errefuxiatuak* ekimenean parte hartzen dugu, Donostiako Zero Pobreziaren bidez, eta gai hori izan du ardatz urriko Pobreziaren Aurkako Asteak ere. Gainera, sare horren salmenta puntu bat jarri dugu gure goitizan, errefuxiatuen defentsan.



Ecuador etxea



GGKE eta EHUren Gipuzkoako campus-eko unibertsitate-eragileek osatutako Unibertsitate Kritiko Sarea taldeak unibertsitateak gaur egungo garapen-ereduarekiko ikuspegi kritikoa izan dezan lan egiten du, eredu horrek ez ditzan betikotu bere botere mekanismoak eta haren benetako gizarte-funtzioa berreskuratu dadin. Urtarrilaren 26an, IV. Topaketa, Unibertsitatean egin da, Donostian, izenburuztat *Unibertsitate kritikoago eta konprometituago baterantz* hartuta. Akademiako eragile berriak, GGKEak eta gizarte-mugimenduak izan dira topaketa horretan, eta unibertsitatean

identifikatutako praktika egokiak ezagutarazi dituzte, sarean lan egiteko helburu sendoak sortzen jarraitzeko. GGKEen eta EHUren arteko lankidetzaren zehaztu da, gradu-amaierako lanak izan daitezkeen lehentasunezko lan-lerroetako bat hurrengo hilabeteetan. Talde horren proposamenak ezagutarazten jarraitzeko, abenduaren 19an, Donostiako Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, mahai-inguru bat antolatu dugu: *Unibertsitate publikoaren erronkak eta proposamenak, agente eraldatzaile den heinean, guztien ongia eta justizia soziala lortzeko eta gi-*

zarte ekitatiboak eraikitzeko bidean. Gai horretan ibilbide oparoa duten Alejandra Bonik eta Vicente Manzanok eman dute.

Bizkaiko gizarte-erlaketarako hezkuntza-taldea sortu da. Talde horrek GGKEek arlo horretan dituzten indarguneak identifikatu ditu; arloari lotutako prestakuntza-beharrak hauteman ditu; eta behar horiei aurre egiteko prestakuntza-plan bat egin du. Eraldaketa sozialerako hezkuntzari lotuta, taldean hartu beharreko jarrerari buruzko dokumentu baten prestakuntzan ere aurrera egin du.

GENEROA

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegia bermatuta dagoela zaintzen dugu; arlo horretan, instituzio publikoekin aritzen gara; eta GGKEak eta beste gizarte-eragile batzuk gai hauetan prestatzen eta bultzatzen ditugu:

Instituzio publikoen hainbat dokumenturi guk egindako ekarpenek genero-ikuspegia txertatua dutela bermatu dugu. Etorkizunean zeregin hori errazago egin ahal izateko, hartu beharreko jarrerari buruzko dokumentu bat prestatu dugu, genero-berdinta-

sunaren arloan erakundeen dokumentuei egin beharreko ekarpenetarako. Dokumentu hori, gure Genero Politikaren barruan, zenbait lantaldetan kontrastatu da, eta oinarri moduan balioko du genero Eredu Dokumenturako.



Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aurrekontuek genero-ikuspegia izan dezaten lanean hasi gara, GGKEk berek jarraitu ahal izateko moduko bidea markatzeko eta genero-berdintasunarekiko dugun konpromisoan aurrera egiteko. Barne-diagnosi bat egin dugu, eta horretako ondorio nagusiak eta gomendioak aurrerago aurkeztuko ditugu Batzar Nagusian. Horretarako, talde Teknikoak eta Genero taldeak zenbait prestakuntza eta bilera izan dituzte gai horretan aditua den Yolanda Jubeto EHUko irakaslearekin. Hura ari zaigu laguntzen prozesu horretan.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure erakundea ordezkatzan duen pertsona batek jarraitu du genero-arduradun postuan, gure genero-politikak agintzen duen moduan.

Erakundeen arteko harremani eta genero-berdintasunari lotutako materia zehatzari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatutako erakundeen arteko lan-saio batean izan gara, martxoaren 28an, Gasteizen. Lan-saio horretan parte hartu zuten honako hauek ere: hiru Foru-Aldundiek; Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Udalek; Emakundek; eta Euskal Fondoak. Genero-arloan egindako aurrerapausoak eta erronkak partekatzea izan da helburua. Horrez gain, maiatzaren 25ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero-arduradunarekin



bilera bat izan dugu, lan-agendak eta informazioa partekatzeko eta elkarlanerako aukerak aztertzeko.

Genero-ikuspegia txertatu dugu antolatutako prestakuntza-saioetan; horrez gain, gai horri buruzko prestakuntza-jarduerak egin ditugu, GGKEentzat eta gure erakundea osatzen duten pertsonentzat.

Barne-komunikazioko jardunean nahiz kanpo-komunikaziokoan ere txertatu dugu genero-ikuspegia, dela komunikazio horiek egiteko ikuspegiaren bidez, dela komunikazioen edukien bidez.

Erakundearen Genero Politikari jarraitpena eman diogu, eta bete dadin zaindu dugu.



FORMAKUNTZA

Kide diren GGKEek zer premia dituzten haztatu ondoren, eta instituzio publiko-ek nahiz lankidetzako beste eragile batzuek zer proposamen dituzten aztertu ostean, prestakuntza-saio hauek jarri ditugu abian, GGKEen jarduna eta eragina sendotzeko:

- # Martxoaren 16an, Alkar Elkartearekin batera, *Elkarteen kudeaketaren hobekuntza* ikastaroa antolatu dugu Bilbon, erakundeei kudeaketa-arloko prestakuntza emateko, bai finantza-arloan (kontabilitatea), bai zerga-arloan.
- # Maiatzaren 10ean, *Libre Office* programari buruzko ikastaroa eman dugu Bilbon, Euskadiko GGKE Koordinakundeak egindako software askerako transizioaren barruan.
- # Uztailaren 11n, Gasteizen, *Herritarren parte-hartzerako kanpainak diseinatzeko tailer praktikoa* egin dugu. Xose Ramilek eman du. Aditua da komunikazioan, marketin sozialean eta hiritarren parte-hartzean.
- # Irailaren 27an, prestakuntza-saioa eman dugu Donostian, Marta Caravantes CIPO Companyko kazetariaren eskutik.
- # Euskadiko GGKEen Koordinakundeko lantaldeentzat ere antolatu ditugu barne-prestakuntza saioak: Donostian, uztailaren 20an; Gasteizen, irailaren 22an; eta Bilbon, irailaren 29an. Prestakun-



tza horrek honako helburu hauek ditu: erakundeetako aurrekontuak nola egiten diren ulertzea, lankidetzara bideratutako partidak kalkulatzeko formula ezagutzea, eta, era horretan, politikan eragiteko gure gaitasuna hobetzea. Jesús Ochoak eman ditu saioak. Ekonomista da, aditua gai horretan, eta Eragin Politikoa lantaldeko kidea, Mugarik Gabeko Ekonomia-ariak GGKEa ordezkatuz.



Abenduaren 17an, Bilbon, genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko lantegi bat antolatu dugu, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko lantalde teknikoarentzat. Yolanda Jubeto EHUko irakasleak eman du.

Abenduaren 4an, Bilbon, *Garapenerako beste bide batzuk* prestakuntza-saioa antolatu dugu. Maria Llanos aholkulari eta lankidetzako prestatzaileak eman du.

Abenduaren 13an eta 14an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera, *Ni ados nago genero-ekitatearekin, baina... Erresistentziak eta gatazkak konpontzea* jardunaldia antolatu dugu. Besteak beste, Lorena Pajares adituak eta Labake proiektukoek hartu dute parte.

Azaroaren 29an, *GGKEak euskarari trebatzeko formakuntza* prestakuntzaren lehen saioa egin da Donostian (guztira, lau saio izan dira). GGKEetan euskararen erabilera bultzatzea eta hobetzea da helburua.

Gure erakundetik kanpo beste eragile batzuek antolatutako prestakuntza-saio batzuetan ere hartu dugu parte, dela haietara joanez, dela parte-hartzaile, hizlari edo laguntzaile moduan:

Eraldaketa sozialerako hezkuntzari buruzko moduluak eman ditugu unibertsitateko gune hauetan: martxoaren 17an, Donostian, Euskal Herriko Mu-

garik Gabeko Ingeniaritzak EHUko Ingeniaritza Fakultatean egindako saio monografikoan; otsailaren 14an, Donostian, Psikologia Fakultatean; eta maiatzaren 3an, Gasteizen, Irakasleen Eskolako Fakultatean. Azken bi horiek EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bu-
legoak antolatu ditu, garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografiko batzuen barruan.

Ekainaren 9an, *Transformar el mundo desde lo local: el papel de los gobiernos locales, regionales y de la sociedad civil en la Agenda 2030* jardunaldian parte hartu dugu. Iruñean izan da, eta Erkidegoetako Koordinakundearen Sareak antolatuta.

Uztailaren 13an, Emakundek eskatuta, erakunde-kulturari buruzko prestakuntza eman dugu Bai Sarea topaketan. Emakundek emandako lankidetzaren erakunde izendapena duten erakunde eta enpresek osatzen dute sare hori, eta lankidetzaren espazio bat eskaintzea da haren helburua, erakunde bakoitzean martxan dauden berdintasun-planek lan-merkatuko genero-arrakalak murrizteko duten eragina biderkatzeko.

CEAR Euskadik antolatutako lantegietan parte hartu dugu, martxoaren 17an eta maiatzaren 4an, Bilbon. *Defendatzaileak babesten* da izenburua, eta arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteari buruzko saioak izan dira.



Urriaren 26an eta azaroaren 9an, Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako *Dibertsitatea sexuala* ikastaroan izan gara, haren gida-plan berriko planteamen-
duekin bat etorri.

Zenbait mahai-inguru moderatu ditugu. Lehen, Mugarik Gabe erakundeak antolatutako *Ikusezinean bidaiatzen* jardunaldietan, martxoaren 30ean, Bilbon; praktika ez-patriarkalen harremana landu da. Bigarrenak *Hezkuntzarako eskubidea: euskal hezkuntza 2030 agenda globalean* du izenburu; Hezkuntza-
ren aldeko Mundu Kanpainak antolatu du, eta Bilbon izan da, apirilaren 5ean. Hirugarrena, Unesco Katedrak garapen iraunkorrari eta ingurumen-hezkuntzari buruz antolatutako jardunaldietan, irailaren 5, 6 eta 7an, Bilbon; *Hezkuntza-
ren botere eraldatzailea* izenburua zuen mahai-inguruak, eta *Hezkuntza, Garapen Iraunkorrerako Helburuen oinarria*, berriz, jardunaldiek. Azken mahai-ingurua, berriz, Mugarik Gabe erakundeak indarkeria matxistari, araudiari eta legediari buruzko jardunaldi kolektibo batzuk eratzeko sortutako gune batean moderatu dugu; azaroaren 2tik 4ra izan dira jardunaldiak, Bilbon.

Boluntariaren (Boluntariotzarako eta parte-hartze sozialerako Bizkaiko agentzia) Unikide programak unibertsitateko komunitatearen eta parte-hartze sozialaren arteko lotura bultzatzea du helburu; horretarako, lankidetzan, talde-lana, erantzukizun pertsonal eta kolektiboa, elkartasuna eta beste hainbat baliotan sakontzen du. Programa horren ba-

rruan, udako elkartasun-proposamenei buruzko hitzaldiak eman ditugu Leioako Irakasle Eskolan (martxoak 29), Elcano Fakultatean (martxoak 30), Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan (martxoak 28) eta Deustuko Unibertsitatean (martxoak 28).

Hegoak institutuak antolatutako mintegi batzuetan parte hartu dugu irailaren 12an eta 28an, Bilbon, hezkuntza-arloko zenbait eragilerekin batera, hezkuntza askatzaileari buruzko oinarri-dokumentu bat egiteko EHU.

Urriaren 10ean, politikan eragiteko estrategiei buruzko ikastaro bat eman diogu Boliviako landa-eremuetako emakume liderren talde bati; Zabalaketaren eskutik, Bizkaira etorri den talde hori, lidertza- eta antolaketa-gaietan prestatzera.

Azaroaren 16an, Bilbon, *GGKEen rola gaur egun* hitzaldia eman dugu, *Google Activate*-k antolatutako jardueren baitan.



IKERKETA

Lankidetzaren sektorearekin lotutako gaien buruzko zenbait ikerketa sustatu eta egin ditugu, sektorea sendotu eta hobetzen lagundu nahian:

Erakundeetako garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko, *Eusko Jauriaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politikaren analisia: garapenerako politiken koherentzia* izeneko azterketa amaitu dugu. Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin (Baketa eta Duintasuna-OMAL) batera egindako lan horrek Eusko Jauriaritzak euskal enpresen nazioartekotzeari laguntzeari begira dituen politikak aztertzen ditu. Txosten hori, ondorio eta gomendioekin batera, erakunde publikoei eta alderdi politikoei aurkeztu zaie, besteak beste, bai eta kazetariei ere irailaren 26an komunikabideekin egindako gosari informatibo batean.

Garapenerako politiken koherentziari buruzko beste ikerketa batekin ere jarraitu dugu, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik aztertzeko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundien plan eta politikak (zehazki, ekonomia-, ekologia- eta gizarte-iraunkortasunean oinarrituta). Lehen zirriborroak prestatu eta beharrezko kontrasteak egin ostean, 2018an aurkeztuko da jende aurrean. Kasu horretan, UNA Gestion y Comunicación enpresarekin batera egin da azterketa.



KOMUNIKAZIOA

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik ekiten diogu komunikazio-zereginari. Horretarako, bidegabekeriak salatu eta pobrezia nahiz berdintasunik eza eragiten dituzten arazoak jakinarazten ditugu, herritarrengan elkartzasunaren kultura sustatzeko:

Hainbat komunikazio-ekintza egin ditugu, hala nola prentsa-oharrak, hedabideei deialdiak, kale-ekimenak, prentsaurrekoak, iritzi-sortzaile diren pertsonekin harremana... Eta horien guztien bidez, eragin handi samarra izan dugu hedabideetan, dela elkarrizketen bidez, dela gure ekintzen berri emanez, herritarrei erakusteko zenbaterainoko konpromisoa duten lankidetzarekin euskal instituzio nagusiek, ekimen publiko horien garrantzia nabarmentzeko, eta pobrezia eta berdintasunik eza sortzen dituzten eragileak eta injustiziak salatuzko.

Radio Euskadiko *Hágase la luz* programan kolaboratzen dugu, Koordinakundearen eta kide diren erakundeen astero-ko iritzi-zutabeen bidez; eta Euskadi Irratiko *Negua joan da ta* udako programan ere bai, elkarrizketa horietan GGKEei parte hartzeko aukera emanez.

Kooperantearen Egunaren harira (irailaren 8an), Hegoaldean dabiltzan euskal kooperanteei elkarrizketak egiteko aukera eskaini diegu hedabideei.

Kide diren erakundeek Hegoaldean dituzten proiektuei buruz online dugun argazki-artxiboa eskaini diegu hedabideei, irudi egokiak izan ditzaten *Hegoaldeari dagokionez* izeneko Irudien eta Mezuen Kodearen ikuspegitik.



Toki ezberdinetan gertatutako larrialdi-egoeren harira (apirilean, elur-jausiak Kolonbian; apirilean, *El Niño Costero* fenomeno meteorologikoaren osteko eurite gogorak Perun; irailean, lurrikara Mexikon; eta irailean, zenbait herrialdetan, Irma urakana), kide diren GGKEen lanari buruzko informazioa bildu dugu, gizartearen eta komunikabideen kontsultei erantzuteko eta, modu horretan, hiritarren elkartasuna bideratzeko.

Plataforma eta sare sozialetan egoteko ahalegina egiten jarraitzen dugu (Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo eta Ivoox), lankidetzan interesa duen komunitate digital bat sortzeko eta gizarte-eraldaketa eta sentsibilizazioa sustatzeko.

Webgunean etengabe eguneratu ditugu edukiak. Haren bidez, jakitera eman ditugu gure erakundeak antolatu edo babes-tutako jarduerak, kide diren GGKEenak, bai eta beste gizarte-mugimendu batzue-nak ere. Eta bestelako informazio askoren berri ere eman dugu webgunearen bidez: lanpostuak, boluntarior-tza-eskaintzak, diru-laguntza publiko nahiz pribatuen deialdiak, artikulua-k eta estekak, jardunaldiak, kanpainak, iritziak...


Astero-astero, *Munduz Mundu* buletin informatibo digitala bidali diegu harpide-dunei, eta, haren bidez, asteko jardueren agenda ez ezik, era askotako informazioa helarazi diegu. Horrez gain, *Gure Gauzak* izeneko barne-buletina jarri dugu martxan. Kide diren GGKEek jasotzen dute aldian-aldian, eta intereseko barne-informazioa ematen du.

Ahotsa aldizkariaren 79. eta 80. aleak argitaratu ditugu. Elkartasunarekin, lankidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako gaiak jorratu ditugu aldizkari horietan, eta hainbat lekutan banatu ditugu, besteak beste: ikas-tetxeak, instituzioak, liburutegiak, hedabi-deak, GGKEak, gizarte-mugimenduak, intereseko pertsonak...

2016eko Txostena eta Bideo-txostena ere argitaratu ditugu. Argitalpen hori funtsezkoa da, gardentasuna errazten du-lako eta kontuak emateko bitartekoa de-lako ez ezik (eta hala dago jasota gure Jokabide Kodean), baita gure jardunaren berri emateko bidea ematen digulako ere.



Gure argitalpen guztiak webgunean daude.



Sare sozial hauen bidez ere jakin dezakezu gure jardueren berri: Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo eta Ivoox.

GGKEAK ETA SEKTOREA INDARTU. PUBLIKOARI ARRETA

Batzar nagusi bat eta hogei lurraldebatzar egin ditugu (zortzi Araban, lau Bizkaian, eta zortzi Gipuzkoan). Batzar horietan, eta gainerako lantaldeetan, parte-hartze aktiboa izan dute GGKEek.

Kide diren erakundeei informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eskaini diegu, besteak beste honako gai hauei buruz: lankidetzak, diru-laguntzetarako deialdiak, enplegu-eskaintzak, prestakuntza-saioak, materialaren mailegua, genero-berdintasuna, komunikazioa, eragin politiko eta soziala, eta administrazio-izapideak.

Pertsona partikularrak ere etortzen dira gurera informazio eta aholku eske, GGKEetan boluntario-lanak egin nahian edota Hegoaldeko herrialdeetara joateko aukeraz galdezka gehienbat, eta halakoei ere lagundu diegu. Horrelakoetarako, gainera, *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu? Nola parte hartu* txostena eguneratu dugu.

Lan-poltsa kudeatu eta jasotako ekarpenak bideratu ditugu. Horrez gain, sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu, GGKEekin aritzen direnei eta kide diren erakundeei deskontu, hobari edota ekarpen solidarioak eskaintzen dizkietenei buruzko informazioa, hain zuzen.





Urtarrilaren 16tik 18ra, kide diren zortzi GGKEko ordezkari bat (Bakea eta Elkartasuna Euskadi, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional, Mundukide, Mugen Gaietan, Mugarik Gabe, Ekintzaz Lagundu eta Munduko Medikak) Bruselan izan da; Europako lankidetzapolitikekin lehen kontaktua izateko, horiek gure eremura gerturatzeko eta politika horietan parte hartzen dutenekin eta Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasuneko ordezkariarekin harremanak estutzeko.

Arabako ordezkarietan, eragile-lanak egingo dituen talde bat eta Prometea kanpoko aholkularitza-etxea azterketa-, gogoeta-, eta ikerketa-prozesu bat egingen hasi dira. 2018an amaituko da, eta kide diren erakundeen parte-hartzea hobetzea eta gure erakundea nahiz kide diren GGKEak sendotzea dute helburu. 2017an, inkesta baten bidez eta GGKEei egindako elkarrizketa pertsonalen bidez, informazioa bilduz joan gara, diagnosi-moduan. Ondoren, lan-saio batzuk egin ditugu, eta, horietatik, antolatze eta parte-hartzeko modu berriak eratorriko dira.

GGKEen eta instituzio publikoen nahiz beste erakunde eta eragileen artean bi-tartekari-lanak ere egin ditugu, GGKEek parte har zezaketen eremuetan, ekimene-tan eta jardueretan babesa emanaz eta bideratuz, eta elkarren arteko eza-gutza eta koordinazioa sustatuz. **Arabian**, honako jardura hauek nabarmenduko genituzke: Araiako azoka, uztailean; jardura bat Burgelun, abenduan; tailerrak emateko eskatu dute eskolek; eta EHIGE Gurasoen Elkarteak erakundeei gune bat utzi die Euskal Eskola Publikoaren Festan, ekainaren 4an, Gasteizen. *Arabian sarean lan egiteko dokumentua* eguneratu dugu. Agiri horrek GGKEentzako intereseko informazioa biltzen du, beren jardunak eta presentzia hobetu eta sustatu ditzaten lurraldean. **Gipuzkoan**, lan handia egin dugu hango erakunde, sare eta plataforma ugariak koordinatzen, zenbait alderditan lurralde deszentralizatu samarra baita, eta askotan eskualde-mailan funtzionatzen baitu. Gipuzkoako zenbait udalekin egiten dugun lana bultzatzen jarraitu dugu; hain zuzen, elkarte-mugimendu oso aktiboa izatea da lurralde horren ezaugarrietako

bat. **Bizkaian**, El Salvadorren gaur egun indarkeria izaten ari den gorakada aztertzeko lan kolektibo bat egin dugu, bertako erakundeak eta biztanleria onuraduna babesteko gure ingurunean hartu beharreko balizko neurriak baloratzeko. Lan horren emaitzari esker, El Salvadorren bilera bat egin da hango erakunde batzuen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artean, azken horretako teknikari batzuek herrialdera egindako bisitaren harira. Kurdistango herrialde-gobernuko ordezkariarekin egindako bilera ere nabarmenduko genuke. Herrialdeko krisi humanitarioari buruzko beren pertzepzioa eta eskaerak helarazi dizkiete ordezkariak GGKEei. Aipagarria da Bizkaiko Foru Aldundiak *I. Euskadi-Senegal tokiko agintarien topaketa* antolatzeko emandako babesa ere. Bilbon egin da, apirilaren 28an.

Gure egoitza, Araban, Gasteizko Simone de Beauvoir Elkarteen Etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren Ganbara elkargunean; eta Gipuzkoan, Donostiako lokal batean, beste erakunde batzuekin batera. Horrek beste pertsona batzuegana eta publiko zabalago eta asotarikoagoarengan iristeko aukera ematen digu. Horrez gain, Gasteizko Udalak utzitako lokal bat dugu kide diren GGKEren materiala gordetzeko.





3 NORTZUK GARA

2017aren amaieran

GGKE kideak: 80



Araba: 33

Bizkaia: 53

Gipuzkoa: 51

Gobernu Batzordea

Maiatzaren 27ra arte:

Lehendakaritza: Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. **Lehendakariordetza:** Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. **Idazkaritza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Diruzaintza:** Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Arabako ordezkaria:** Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. **Bizkaiko ordezkaria:** Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. **Gipuzkoako ordezkaria:** Iñaki Orube, Mugen Gainetik.

Maiatzaren 27tik aurrera:

Lehendakaritza: Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. **Lehendakariordetza:** Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. **Idazkaritza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Diruzaintza:** Jaime Bernar, Zabalketa. **Arabako ordezkaria:** Bete gabe. **Bizkaiko ordezkaria:** Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. **Gipuzkoako ordezkaria:** Lurdes Fernández, medicusmundi gipuzkoa.

Lan-taldeak

Euskadi

Eragin Soziala eta Politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa eta Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Eva Silván, Save the Children. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. Sebas Gutteridge, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Josu Urrutia, Mundukide. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Irune Martínez, OSCARTE. Aitana Uriá, Unesco Etxea. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Bernardo García, Anesvad*.

Genero

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Sarai Martín eta Arantza Larizgoitia, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Ana Etxarte, medicusmundi bizkaia. Patricia Hernández, ALBOAN. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Cristina Alba eta Greta Frankenfeld, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Natividad Campillo, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Nora Ziarsolo, SETEM Hego Haizea. Silvia Santos, Anesvad*.

Euskadiko GGKEen Koordinakundean sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Hegoa. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación; Gobernu Batzordea ordezkatur. Irene Molero, Koordinazio orokorra; eta Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa, urteko une desberdinetan.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia

Joana Etxano, Mugarik Gabe. Pilar Oronoz, Zabalketa. Javier González, Bakea eta Duintasuna. Álvaro González, ALBOAN. José Ignacio Alonso, Save the Children. Mónica Oyarzabal, PROCLADE YANAPAY. Amaia Iguaran, Ayuda Mas.

Ekintza Humanitarioa eta Larrialdiak

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Eva Silván, Save the Children. Jaime Bernar, Zabalketa. Geert Demon, SEADen Lagunen Elkarte Araba. Marta Cruz, Oxfam Intermón. Bernardo García, Anesvad*.

* Erakunde hauek ez dira Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide. Hala ere, parte hartzen dute gure erakundeko lantalde batzuetan, gure erakundean sartzeko eskaera egin ostean eta sarrera berrien Jarraipen Batzordeak lehen txostena aldekoa eman ondoren. Eskubide osoko erakunde kide gisa behin betiko sartuko dira, baldin eta bigarren txostena ere aldekoa jasotzen badute, eta kide diren gainerako erakundeek Batzar Nagusian aldeko erabakia hartzen badute.

Aurrekontuak

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Marian Uriarte, medicusmundi álava/araba. Conchi Picón, Mundubat.

Tresnak eta Lehentasun Geografiko eta Sektorialak

Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Nacho Grossi, Mundu Bakean. Jaime Bernar, Zabalketa. Jesus González, Mugarik Gabe. Jesús Pizarro, FISC cooperación y desarrollo. Joseba Villa, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. Josu Urrutia, Mundukide. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Laura Laborra, medicusmundi gipuzkoa. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Alberto Cereijo, Setem Hego Haizea. Carmen Rodríguez, Mundubat. Iñigo Odriozola, Tau Fundazioa. Leire Morquecho, ALBOAN. Alfonso Noboa, Anesvad*.

Barne-koherentzia

Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Rafa Ferrer, Zabalketa. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Lorena Fernández, SETEM Hego Haizea. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Lurdes Fernández, medicusmundi gipuzkoa.

Koherentzia Instituzionala

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. María del Mar Magallón, ALBOAN. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Josu Urrutia, Mundukide. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta euskal lankidetzaren politiken urteurrena

Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Ainara Cortázar, Zabalketa. Ion Ander Areses, medicusmundi álava/araba. Iñigo Odriozola, Tau Fundazioa. Maialen Elorza, Bakerako Lankidetzaren Batzarra.

Araba

Eragin Soziala eta Politikoa

Evan Silván, Save the Children. Itziar Marquínez, medicusmundi álava/araba. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. Vanessa Cachafeiro, Mugarik Gabe.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Arabako Ordezkaritzaren parte-hartzearen inguruko hausnarketa prozesua

Jon Narváez, SETEM Hego Haizea. Vanessa Cachafeiro, Mugarik Gabe. Sebas Gutteridge eta Natividad Campillo, Bakerako Lankidetzaren Batzarra.

Bizkaia

Eragin Soziala eta Politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Sebas Gutteridge, Bakerako Lankidetzaren Batzarra. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Irune Martínez, OSCARTE. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Bernardo García, Anesvad*.

Gizarte Eraldakerarako Hezkuntza

Aitor Gómez eta Irantzu Ortega, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Álvaro González, ALBOAN. Bea Pérez eta Diego Argumero, Munduko Medikak. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Greta Frankenfeld, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Karen Rodríguez, medicusmundi bizkaia. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Lianella González, Oxfam Intermón. Markel Ruiz, Bakerako Lankidetzaren Batzarra. Mónica Oyarzabal, PROCLADE YANAPAY. Mónica Vázquez, Unesco Etxea. Oscar Pérez, Gazteak eta Garapena. Pablo Vidal, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Pedro Marañón, Itaka Escolapios Fundazioa.

Gipuzkoa

Eragin Soziala eta Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Xabier Martínez eta Lorea Undagoitia, Mugarik Gabe. Amaia Iturri, Interred Euskal Herria.

Gizarte Mobilizazioa eta Komunikazioa

Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa. Ana Mocoeroa, Elan Euskadi. Pello Sarasua, Interred Euskal Herria. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Idoia Azpilicueta eta Josean Blanco, PROYDE-PROEGA.

Donostiako Zero Pobrezia plataforman parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Unibertsitate Kritiko Sarea

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, medicumundi gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Eburne Gallo, Calcuta Ondoan. Olaia Larruskain, Emaús Gizarte Fundazioa. Nerea Aginako, Haurralde Fundazioa.

Erakundeetan partaidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. Josu Urrutia, Mundukide.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Eva Silván, Save the Children. María del Mar Magallón, ALBOAN. Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. María Viadero, Mugarik Gabe. Josu Urrutia, Mundukide. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Santiago Martínez, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra

Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.

Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetzaren Elkargunea

Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan.

Talde Teknikoa

Irene Molero, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoa. Izaro Basurko, Gizarte eraldaketarako hezkuntza eta sareak; Maitane Cabezasek ordezkatu du irailtik aurrera. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa. Maitane Cabeza, Gizarte eraldaketarako hezkuntza eta sareak.



GGKEak

Gosearen Aurkako Ekintza - Acción Contra el Hambre
Acción Verapaz Euskadi
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzeta Batzarra
Baltistan Fundazioa
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoazia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Euskal Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo

FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
Mariaren Lagundia
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako
Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkartea Afrikanista
medicusmundi álava/araba
medicusmundi bizkaia
medicusmundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugen Gaietik

Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuek
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
OSCARTE
Oxfam Intermón
Pausumedia
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskal Herria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo y la Paz
Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

4 KONTU ARGIAK

SARRERAK 2017	BURUTUA (€)	%
Kuotak	28.790	7,17
Eusko Jaurlaritza	200.000	49,80
Arabako Foru Aldundia	15.000	3,73
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8,47
Gipuzkoako Foru Aldundia	45.000	11,20
Bilboko Udala	18.000	4,48
Donostiako Udala	34.150	8,50
Gasteizko Udala	24.000	5,98
Jarduerengatik sarrerak	2.697	0,67
GUZTIZKOA	401.637	100,00

GASTUAK 2017	BURUTUA (€)	%
Bulegoko materiala	6.473	1,61
Soldatak	293.164	72,95
Bidaiak	8.112	2,02
Kanpo zerbitzuak	82.149	20,44
Funtzionamendua	11.951	2,98
GUZTIZKOA	401.849	100,00

EMAITZA (€)	-212
--------------------	-------------

2017ko kontuak BNFIX KLZ Auditores kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago [webean](#).



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
Tel. 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbo**
Tel. 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
Tel. 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Euskararekin bat



Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak